



SAN JUAN JAIETAKO HAINBAT EKITALDI, UDALETXEKO BALKOI NAGUSITIK IKUSTEKO ZOZKETA

ARAUDIA

Errementari Dantza, Nagusien Danborrada eta Haur Danborrada Udaletxeko balkoi nagusitik ikusteko zozketa abiatzeko araudia.

Ekitaldiak:

Ekitaldi bakoitza, ekintza desberdin bat kontsideratuko da. Hiru ekimen desberdin kontsideratuko dira, eta bakoitzarentzat apuntatu beharko da. Pertsona bakoitza ekimen bat baino gehiagotan apuntatzen bada, ezingo zaio tokatu bi ekitaldi ikusteko aukera.

Ekitaldiak hurrengoak izango dira:

- Errementari dantza
- Danborrada
- Haur Danborrada

Zozketaren mekanika:

15 plaza zozketatuko dira ekitaldi bakoitzeko eta irabazleak lagunduta etorri ahal izango dira, beraz, guztira, 30 herritar igo ahal izango dira balkoi nagusira.

Eskaerekin 3 zerrenda osatuko dira, ekitaldi bakoitzerako bat, eta hiru zozketa egingo dira. Zozketa bakoitzean 15 irabazle aterako dira, eta 15 ordezeko.

Pertsonaren bat zozketaren baten baino gehiagotan irabazle suertatzen ba da, ekitaldi bat aukeratzeko eskatuko zaio, eta dagokion ordezekoen zerrendako lehenengoari esleituko zaio libre geratu den plaza, beti ere ordezeko horrek ez ba du plazarik beste ekitaldiren batean.



Baldintzak:

Arrasaten erroldatua egon beharra dago zozketan parte hartu ahal izateko eta 16 urte beteak izan maiatzaren 31rako. 16 urtetik beherako haurrak nagusi batekin lagunduta igo ahalko dira balkoira, hortaz, nagusia apuntatu beharko da.

Zozketarako izena ematea:

Ekainaren 1etik 8ra aukera izango da izena emateko webgunean www.arrasate.eus eta BAZ (Biztanle Arreta Zerbitzuan).

Zozketa ekainaren 10ean egingo da, eta egun horretatik aurrera telefonoz jakinaraziko zaie irabazleei. Behin itxia eskaerak jasotzeko epea eta datuen kudeaketarekin bukatu ondoren, eskatzaileen zerrenda publikoa egingo da.

Zozketan irabazle suertatu direnei Udaletxera sartu ahal izateko NAN aurkeztu beharko dute akreditazio edo baimena jasotzeko.

Irabazleak ordu hauetan egon beharko dira Udaletxean NANarekin

- a) Errementari dantza ikusteko 22:00
- b) Danborrada ikusteko 23:30
- c) Umeen Danborrada ikusteko 19:30